

Txomin Peillen: kuttuna, humanista, maila goreneko intelektuala, Manuel Lekuona

Saria 2009

Salinas Elozegi, Aitziber

Bizitza osoan zehar egindako lanari eskainitako saria jaso zuen maiatzean Parisen zein Zuberoan lanean etengabe aritu den Txomin Peillenek, maila goreneko intelektual eta humanistak. Aldizkari zenbaitetan argitaratutako 200 artikulutik gora, egunkarietako ehunka artikulua, literaturra lanak eta osatu dituen 43 liburuak (39 euskaraz, 3 frantsesez, 1 gazteleraz.....) horren adierazgarri dira. Eta baita maiatzaren 22an, Baionako udaletxeko lehen solairua zuberoarrari gorazarre egiteko bete zuten euskaltzaleek Txomin Peillenengandik jasotakoak ere. Izan ere, lagun, lankide eta ikasle izandako asko bildu ziren Peilleni saria emateko ekitaldian. Eta denek jaso zuten sarituaren biografia biltzen duen argitalpena eta idazlearen irudia goratzen duen bideoa ikusi. Remigjo Mendiburuk egindako eskultura hunkituta jaso zuen idazleak Jose Luis de la Cuestaren eskutik, Manuel Lekuona sariaren adierazpide fisikoa. Ekitaldian hizlari Baionako Udaleko Kultura eta Ondare ordezkari Jean-Rene Etchegaray; Eusko Ikaskuntzaren Lehendakariaren alboko Jose Luis de la Cuesta, Eusko Ikaskuntako Ipar Euskal Herriko lehendakariorde Jean-Michel Larrasquet eta omendua bera, Txomin Peillen, izan ziren.

1983an sortu zuen Eusko Ikaskuntzak sari hau euskal kulturako pertsoneri *opera omnia* aitortzeko eta urte hartan Manuel Lekuonak berak saria jaso zuenetik Odón Apraiz, Bernardo Estornés, Adrián Celaya, Jorge Oteiza, José María Jimeno Jurío, Piarres Charritton, José Ignacio Tellechea Idígoras, Jean Haritschelhar, Menchu Gal, Sabin Salaberri eta Montxo Armendarizekin batera osatzen du, besteak beste, irabazleen zerrenda aberatsa.

Euskal kulturari langile porrokatua, zuberotar eta euskalduna (ala euskalduna zuberotar delako?), heterodoxoa (Zuberoan beti izan direla heterodoxoak errepitatu du sarritan berak), beti *kontra bidetik* ibilia, zuzena eta ez-diplomatikoa, bakezalea, hauek dira gehien errepikatzen diren gure saridunaren ezaugarri nagusietako batzuk [...],



París, 1956. Aberri Eguna. Txomin Peillen, Leizaolaren semea, Irungo Errekondotarrak

Azpiratu zuen Jose Luis de la Cuestak Eusko Ikaskuntzaren Lehendakariaren ondokoak, Jose Mari Muñoa Lehendakariaren izenean, Baionako ekitaldian. Gregorio Monreal Lehendakari ohiaren mezua ere eskaini zuen De la Cuestak:

Euskal Kulturari kuttuna zaion pertsona da, maila goreneko intelektuala, humanista, erreparorik eta etenik gabe ekin duena herrialde honen iraupena luzatzeko. Gure herriak ezin izango du kitatu harenganako duen zorra. Lekuona saria jaso duten guztiak ondrazten ditu haren izena beraien artean edireteak.

“Nola definitu Txomin Peillen? Zergatik definitu?”, galdetu zuen Jean-Louis Davant idazleak Manuel Lekuona Saria emateko ekitaldian.

Txominen eskua idazlan mota guztietan sartzen du, denetan asko baitaki. Gogoa beti alhan ari zaio, erraztasun handia du ororen irensteko eta beretzeko, halaber adierazteko, bai lumaz, bai mingainez eta mihiz. Ikerlari dohaina du, ezin ase; irakasle sena ere bai eta hori zuen ofizioa, bai Paris aldean, bai Baionako Fakultatean. Idazteko irrika eta tirria du halaber, eta komunikatzaile trebea da [...].

Ausartu zen Davant deskribapenean. “Hitz gutiz errango dut bakarrik zein ikerlari zorrotz eta nasaia den batetik, idazle zinez emankor eta polifazetikoa bestetik, denetarik egiten baitu, eta ongi egin”, zehaztu zuen idazleak.

1. Pariseko euskalduna

Txomin Peillen 1932. urteko azaroaren 17an sortu zen Parisen. Gurasoak euskaldunak zituen, Joanes Peillen Ligi eta Maddalen Carricaburu, baina bizitzaren gora beherak direla eta Frantzian ezagutu zuten elkar.

Gurasoak ekonomia arazoengatik Parisera joanak ziren, bakoitza bere aldetik, eta han egin zuten topo, baina lehendik ere elkar ezagutzen zuten, ama Larrainekoa baitzen eta aita Ligikoa, hots Andoze ibarrekoak. Ni Parisen euskalduntzea beste gauza bat izan zen, bost urte bete arte euskaraz mintzatzen bainekien, baina gero galdu egin nuen. Hamahiru urterekin berriro gaitu nintzen euskaraz mintzatzeko. Bitxia da, aitak ez baitzuen gurekin euskaraz hitz egin nahi, baina amari eskapatzen zitzaion; euren artean ez zuten sekulan frantsesez hitz egiten [...],

azaldu zion Peillenek Josemari Velez de Mendizabali *Euskonews* aldizkarirako eskainitako elkarrizketan. Azkenik Txominek bere aldetik ikasi zuen euskara, Pariseko beste euskaldun batekin, Andima Ibinagabeitia bizkaitarrarekin. Jon Mirande eta Gabriel Arestirekin izandako harremanak ere bere norabidean izan zuen eraginik Jean-Louis Davantek omenaldi hitzaldian azpimarratu zuenez: “Hirurak lagunak ziren euskaldungoan eta literaturan, haatik ez poltikan: Mirande ideiaz beltza zen, Aresti gorria, eta Peillen elektroi librea”.

Hain justu bere lagunekin gogoratu zen *Euskonews* aldizkarirako elkarrizketan Manuel Lekuona Saria jasotzeagatik harro sentitzeko motiboetaz galdetuta:

Ez nintzateke idazle, ikerlari, euskaldun, abertzalea izatera helduko lagundu nautenen laguntzarik gabe. Ez banitu ezagutu zenbait pertsona –besteak beste, Ibinagabeitia, Mitxelena, Aresti, Haritschelhar, Apalategi– auskalo non egongo nintzen. Etsitzen nuenean adorezko hitzak zuzentzen zizkidaten.



Sara, 1997. Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindiak antolatutako *Antonie D'Abadie 1897-1997* Kongresuko partaideen txangoa

Aldiz, etsipena adierazi zuen Jon Miranderi buruz galdetuta:

Andimaren bidez ezagutu nuen Mirande. Baina Mirande niretzat porrota izan da, ez bainuen lortu bera faxismotik urruntzea eta bere burua bizirik edukitzea. Bere poemarik zaharrena 1948koa da, heriotzari buruzko soneto bat. Lagundu nahi nion... baina ez zidan kasurik egiten! Andimari gehiago egiten zion, baina zoritxarrez hura Ameriketara joan zen. Mirande etsimendura erortzen zen, sarri. Hori nire lehen porrota izan zen. Badut beste bat, Alfontso Irigoyenekin, ez bainuen laguna baketu ahal izan, haserrekorra zen-eta.

Euskara berreskuratzeko esfortzua heldua zenean egin zuen beraz Txomin Peillenek, bere kabuz, Pariseko lagun euskaltzaleen bultzadari esker:

Bi arrazoik bultzatu ninduten: alde batetik, anaia eta biok deskubritu genuen etxean *En France* liburua, Onesime Reclus geografo biarnesak idatzia, euskara XX mendean hil egingo zela zioena, eta gaineratzen zuen literaturarik gabe hizkuntza bat hiltzea birritan hiltzea zela. Bigarren arrazoia, Andima Ibinagabeitia izan zen. Biek *bortxatu* ninduten euskaraz idaztera. Andimarekin Pariseko Eusko Jaurlaritzaren ordezkartzan egin nuen topo. Garai hartan bretoaia ikasten ari nintzen eta haien egoitzan entzun nuen lehen aldiz Gernika abestalde. Nik ez nekien ezer abertzaletasunaz, ezta existitzen zenik ere! Eta niri ere euskaraz abestea gustatzen zitzaidalako Avenue Marceau-ko ordezkartzara jo nuen, eta Andimak ireki zidan atea. *Euskal nazionalismoaz nago interesatua esan nionean... Lehenik, euskara ikasi! arropostu zidan Eta gero ikusiko duzu abertzale ala nazionalista zaren.* Ordudanik abertzalea naiz [...],

gogoratu zuen Peillenek.

Halaxe murgildu zen pixkanaka euskal munduan. Parisen, lehenik, Biologia lizentziatura egin zuen eta eskolak ematen aritu zen zenbait urtez. Ondoren, Iberiar eta Iberoamerikar gaztelaniazko lizentziatura egin zuen, baita hezkuntza jakintzen lizentziatura ere. Horiekin guztiekin, alde batetik literaturan eta hizkuntza irakaskuntzan sartu zen eta Parisen 12 urtez Lavoisier lizeoan euskara irakasle izan zen. Gainera, Eusko Ikasketen doktoregoa egin zuen Bordelen Haritschelharrekin eta 15 urtez izan zen euskal irakasle Paueko Unibertsitatean, orain irakasle emeritu den unibertsitatean.

Ikasketa eta irakaskuntza lanak egin bitartean filologia eta linguistika lanak argitaratu zituen, euskaraz eta frantsesez, gehienak zubererari buruz. Gainera, 1982. urtean Euskal Herrira etorri eta Santa Graziko etxetik bere etnografia lan handienak egin zituen, Santa Grazi eta Ligiko berriemaileekin.

Doktoradutzako tesia nuen pasatzeko eta banekien lanpostu bat bazela Paueko Unibertsitatean. Uste nuen ikerketa lanak euskaraz egiten jarraitzeko, Euskal Herrian egon behar nuela. Euskal katedra sortu zuten Baionako Fakultatean eta Euskara eta Euskal Zibilizazioa delako katedraren arduraduna izan naiz. 1998ra arte. Orain katedradun emeritua naiz. Orain lan egiten dut kongresu jardunaldi eta abarretan[...],

azaldu zuen Peillenek *Euskonewseko* elkarrizketan.

2. Eskerrak

Hunkituta hartu zuen Txomin Peillenek Eusko Ikaskuntzak Baionan eman zion saria,

[...] ezen denbora berean On Manuel ohoratzen duelako. Ez dugu ahantzi behar Lekuona jauna Eusko Ikaskuntzaren sortzaileetako izan zela, Euskaltzandiko gure akademiako buruzagi izendatu zela duela 43 urte.

Horrela, “oiartzuar euskaltzale handiari” omen egin zion zuberotarrak, bai eta “euskaldun eta euskal idazle edo ezkiribazale egin nindutenak” ere bere “zorrak aitortuz”:

Euskaldun egin ninduten amak eta Xüberoako askaziek lehenik; gero, Andima Ibiñagabeitia elantxobetarrak eta Gotzon Egaña donostiarrak Gipuzkoako euskaraz mintzatzen eta idazten irakatsi zidaten. Parisen bizi eta ez zitaidan aisa izan euskararen begiratzea, eta ikastea ere, batzuk erraten baitzidaten *Zentako denbora galtzen dük aphez mintzaje horren ikastera*. Ez nuen batere apezteko gogorik, haurzaroan, txipian, labe ondo batean ogiegile izan nahi nintzelako ordukoz hozpera nintzelako.

Bigarrenik gogoan ditut lehenago euskaraz literatura idaztera eraman ninduten hemeretzi liburu agerrarazi arte, Andima Ibinagabeitia, Luis Mitxelena, Jon Mirande eta Gabriel Aresti, azken horrek espainolez ere idaztera erakarri ninduenak. Aitor dezadan ez banu plazerrik haretu idazten, izaten nuen arrakasta txipiagatik ez nuela egiten jarraikiko [...],

aitortu zuen Baionako omenaldian. Izan ere, Peillenek ikerketa gehienak euskaraz idatzi arren, badaki beste hizkuntzetan idazteak eta mintzatzekoak merezi duela eta saiatzeko da egin dituen ikasketak gehienez baliatzen.

Baina ez ziren hor amaitu idazleak saria jaso ondoren gogoratu zituenak, zerrenda luzea egin baitzuen, bere lanean bultzatu eta babestu dutenekin akordatu.

Orain euskaraz idazten sustatzen naute *Maiatz* errebistan Lucien Etxezaharretak, Manex Pagolak *Zubiak* aldizkarian, Jokin Apalategik *Utriusque Vasconiae* argialetxean eta Andres Urrutiak Euskaltaindikoan, Sabin Oregi Dakit. Literaturatik kanpo, Jose Maria Satrustegi eta Apalategi anaiek akulaturik nire jakintza ikerketarako, 25 liburuetatik, 21 euskaraz egin ditut. Ene xedea izan da, ahalaz, Xüberoako laborari eta artzain munduan kurritzen ziren jakitateak biltzea: ihizeaz, zepoen edo arteen erabiltzeaz, lehenagoko etxe erremedioak eta gorputzaren inguruko ezagutzeak, sineste zaharrak, jatekoak eta beste.

Gehexan Pontto, Maite Lafourcade eta Maite Idirin adiskideei eskerrak eman zizkien eta ez zuen ahaztu

[...] isilena laguntzaile, sostengu handi eta pazientziarekin jasan eta jasaten nauen Marie-Thérèse emaztea dut. Odeietan bizi garenok holakoen beharra badugu ezpagara Ikaro bezala odeietarik gogorki erori nahi.



Santa Graziko Ibarbürü etxean, 1997. Txomin Peillen, Marie-Thérèse Olivier emaztearekin

3. Ikerketak, gehienetan euskaraz

Gure aurreko belaunaldi etsituak ez zuen sarritan, euskaragan larregi sinesten, beren ikerlan gehienak frantsesez edo gaztelaniaz egiten zituzten eta askok ez artikulu bat ere idazten euskara zekitelarik. Resurrección de María Azkuek eta Juan Garmendia Larrañagak beren lanak bi hizkuntetan ematen saiatu zirenak izan ezik.

Kontatzen du Peillenek Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria 2009 saria dela eta argitaratutako biografian, argitaratzerakoan aukeratutako hizkuntzari buruz.

Maiz, galdetu diote Txomini zergatik bere ikerketak euskaraz egiten dituen? Horrela egitean Peillenen xedea zen gure kulturako zati direnei etnologia jakituria gure hiztegiarekin gure berezitasunarekin ezagutaraztea, horregatik Donostiako AEB argitaldariarentzat eta Ataungo Barandiaran fundazioarentzat berriemaileekin egin zuen liburu bat; atseginez jakin zuen Zuberoako herri sendakuntzaz egin zuen azterketa, Bilboko medikuntza talde batek ikertu zuela.

Azaltzen du Peillenen biografiak. Euskaraz argitaratzearen garrantzia argi izan arren, Peillenek hiru liburu argitaratu ditu frantsesez, bata lexikografiako tesia, 1981. urtean ezin zelako euskaraz egin (Euskaltzaindiak argitaratu berri du euskara *Biologiaren hiztegi*az izenburuarekin); bigarrena, frankofoneoi euskara ezagutarazteko *Parlons l'euskara* izeneko lana izan zen eta hirugarrena, zubereraz dauden okzitanismoak aztertzen zituen idatzia, *Les emprunts de la langue basque à l'occitan de Gascogne*, 1995. urtean, ondoren Madrileko UNEDeko linguistika saiakera saria lortu zuena.



Baiona. 2010-05-22. Jean Michel Larrasquet, Txomin Peillen, Jose Luis de la Cuesta eta Jean Louis Davant

Badaki zer muturra egiten duten manexek beren gaskonismoak eta ixuragabetu frantses hitzak aipatzen dituenen. Ez da oraindik benafarrera diren mailegu hitzez lanik egin, bereaz kanpo, alegia zuberera baino garbiago delakoa omen baita. Aspaldian idatzi zuen, ingelesa adibidetzat emanaz, ezin baztertuak direla osoki maileguak, hizkuntzek emazteek bezala ez dutela fruiturik ematen birjina egonaz, ez eta prostituz ere, baina ditugun hitzak gorde behar ditugula, eta ez beharrik gabe modazkoak hartu. Hiztegia baino txarrago da joskeran hartzen ditugun erdal kalkoak.

Azaltzen du argi bere buruari buruzko biografian Txomin Peillen idazleak.

Izan ere, oso argi du Peillenek euskaraz egiteko beharra, eta horretarako 1968an Pragan Norbert Tauer txekiar euskaltzaleak esan ziona gogoratzen du, txekieraren adibidea emanaz: “Zuen hizkuntza salbatu nahi baduzue: euskaldunekin beti euskaraz hitz egin behar duzue”.

Ipar Euskal Herrian ez gaude bide onean eta Hegoaldean ez askoz hobean. Gertaera horiekin ez da aztia edo profeta izan beharrik, finantzetan bezala epe laburrean ibili behar da eta hizkuntza dominatzaileek buruan sartu diguten buruzagitza bazterten jakiten badugu gure hizkuntzak beharbada beste menderik ezagutuko du. Zenbat aldiz ez du entzun euskara *independentziarekin* salbatuko dela! Nola daiteke elebiduntasuna eskatzen duten abertzale paperetan euskaraz % 10 gaingitzen dutelarik!

Galdetzen dio bere buruari Peillenek zenbait pentsakera eta euskaraz argitaratzen diren lanen kopurua parekatuta, lehentasunak argi ezarriz.

Beraz, Txomin Peillenen ustez, euskararen gainean egiten diren

[...] predikuak eta misterio argitzeak, nahiz aspertzen duten, ez diote sekulan euskaldun izatea oztopatu, nahiz balizatekeen, omen, aunitz errateko, munduko hizkuntza guzietan gurea

konparatu dutenek euskal nortasunaren ukatzeko edo dagoen baino gorago ezartzeko: euskal exotismoak badauka aunitz idatzia eta batzuetan entsuratua izan da ameslaria ez delako.

Euskaraz argitaratzearen garrantzia argi edukita, ez dio uko egin bestelako hizkuntzetan argitaratzeari, izan ere, gaztelaraz argitaratu zuen *Bosquejos Vasco Uruguayos*, euskal kultura uruguaiarrei ezagutarazteko eta uruguaiar kultura euskaldunei gerturatzeko helburuz. Inglesez, artikulu bat eta kantu bat idatzi zituen Txomin Peillenek, alegia, "saiatzen da egin dituen ikasketa gehienez baliatzera", nabarmentzen du.

Beren lehen lanbideak biologia izan zuen ardatz, eta horren ingurukoak ere argitaratu zituen, Elhuyarren, adibidez, artikulu zenbait bai, Darwini buruz, zahar-tzeaz, osasunaz eta heriotzaz. Gainera, *Bizidunak haurren eta helduen heziketan* didaktika liburua ere kaleratu zuen. Biologiaren hiztegiak eginiko tesia ere anatomia, fisiologia eta patologiaren ingurukoa izan zen eta Barandiaran fundazioak ere argitaratu zizkion bi etnologia saiakera liburua zenbaitetan.

Hala, 24 ikerketa liburua kaletratu ditu, baina, gainera, aldizkari ugaritan 192 ikerketa artikulu argitaratu ditu aldizkari askotan: *Coadernos de Etnología y etnografía de Navarra*, *Fontes Linguae Vasconum*, *Anuario de Eusko Folklore*, *Bulletin du Musée Baque*, *Egan*, *Ekaia*, *Elhuyar*, *Euskera*, *Habe*, *Ikerl-X*, *Jakin*, *Lapurdum*.

Txomin Peillenen argitalpen gehienek euskaraz ikusi dute argia: "Atseginik hartu ez balu behar horretan ez zuen jarraikiko baizekien idaztea lan bide baldin bada ez dela ogibidea", zehaztu zuen egile emankorrek.

4. Idazle

Pariseko Henri IV lizeoan 1948. urtean aspertzen zelarik, ondoko bretoi lagunak Jakez Moalek soldadu batek bere maiteari zuzendu kantu bat frantsesera itzuli zion eta Txomin Peillenek euskaraz eman, euskaraz haren lehen *idatz lana* izan zen. Gero, euskal literaturaren orduko sasi trinkoan sartu zuena eta aurrera egitera bultzatu gorago aipatu Andima Ibinagabeitia izan zen. Andimak bataiatu Mirandetar Jon zuberotar bat ezagutarazi zion, eta gero bata besteen etxeetan hilabete oroz eta larunbatetan lauzpabost lagun bildu ziren. Bakoitzak idatzi zituen lantxoak ekarten zituen, jadanik *Gernika*, *Egan* eta *Euzko Gogoa*, aldizkarietan artikulu eta olerkiak argitaratzeko ahala izan baitzuen. Robert anaiak ipuin bat baizik ez zuen idatzi baina bilduma batean Txomin Peillenen izenarekin agertu zen. Garai hartan, haurrentat eta helduentzat ipuin eta kntakizun ere idatzi zuen Txominek, gehienak orduko gipuzkoera osotuan. Andima Parisen zegoeneino giro onean egon zen [...]

kontaten du Txomin Peillenek berak saria dela eta argitaratu den biografian.

Euskaraz nola idatzi pentsatu beharra zegoen eta horrek buruhausteak eragiten zituen garai hartan. Hain justu, orduan idatzi zituen Jon Mirandek bere olerki eta prosa gehienak gipuzkera osotuan: azken lan nagusia *Haur Besoetakoa* eleberria izan zen 1959. urtean. Beranduago, Mirandek olerkiak lapurtartu eta eleberri bera euskara batuan berridatzi zuen.

Idazteko hizkuntza arautua behar da eta hasieran, behin zubereraz idatzi badu, Txomin Peillenek, gero beregisako gipuzkera osotuan, baina Villasantek eta Krutwigek aholkatzen

zuten lapurtar klasikoaren bidetik, eleberri bat eman zuen *Itzal gorria* (1963), Agirre saria izan zuena (1966) geroztik euskara batuan irakurgarriagoa eman du, Sarrionandiak irakurri lehen eleberria izan zen eta bere denboran nekez ulertu zuen, gero giltzapean zenean gustura egin [...],

azaltzen du Peillenek.

Hala ere, Txomin Peillenek euskara batua baino lehen 'h' batzuk eta lapurtarrik hartutako zenbait hitz erabili zituen. Baina ez du horregatik bere jatorrizko euskalkia inoiz bazter utzi, zuberotar literaturaz liburu bat egin zuen *Zuberoako itzal argiak* izenekoa, askoz geroago epopeia antzeko olerkia Zuberoako kondairaz eta zubereraz. Azkenik, 2009. urtean *Euskeran haren, asto lasterra, Ehiztariez eta Ekologistez Ihilor eta Ekorlor* fartsa kaleratu du eta guzti hori egiten zuenarekin irmo, alegia, argi edukita "euskalkiek beren lekua izan behar dutela kantugintzan, olerkigintzan eta antzerkian baita lehen adinetako ikastoletan ere".

Baina euskaraz argitaratzea ere ez zen garai hartan hain erraza Txomin Peillenek berak kontaktzen duenez:

Iparraldean, borondate eta irakurle ezaz, ez zen, Elizaz kanpo argitaratzeko modurik eta halaxe 1953. urtean idatzi zuen *Gauaz ibiltzen dana* eleberriak, bi urte eta erdiko sodadokatik itzultzean 1964. urtean Txomin Agirre sariagatik 1966. urtean argitaratu zioten Hegoaldean. Testu luzeagoak argitaratzeko ahalbidearekin eleberri idazten eman zitzaigun, eta bederatzietarik lauek sariak irabazi zituzten. Jakina, aspaldiko kontuak dira eta liburutegietan baik ez dira antzematen eleberri baten bigarren edizio, batuan, baizik ez du eduki, *Itzal Gorria* delakoarena beraz euskal literaturan, zahar askoren gisa, idazlea laster fosilizatzen dabil.

Gainera, haurrentzat hiru ipuin bilduma idatzi zituen Peillenek Hor Dago delakoak argitaratuak. Helduentzat sasi-erotikazko ipuinak, fantasiakoak, umorezkoak, detektibe girokoak idatzi zituen, guztira 95 argitaratu zizkieten. Lau eleberri sari eman zizkieten eta Peillenek ez du uste "okerregi ibili zirenik".

Aholkulari nagusi Mirande zuen Peillenek hizkuntzari dagokionez eta Mitxelena landutako gaiei dagokienez. Orain, aldiz, andrea eta beste bi adiskide ditu benetan kritika egile zorrotzenak,

[...] baina orain baditugu euskal literaturaren epaileak, maiz, beren espainol ikasketek eta estatubatuarren mirespenez markatuak, kritika imiorik egin gabe lerro batean erabakitzen dutenak txarra ala ona zaren. Badira, ordea, kritika onak hala nola Ion Olano argudioekin esaten dizunean, zertan hobeki egin zenezakeen eta zergatik ez zaion zerbait gustatu. Parisen, argitara zedin, ezagutu euskaldun ikasle batzuei, haren alde sinadurak eman zituztenei, hala nola Jokin eta Joxemartin Apalategi, Joxean Agirre ilunpetik atera zutenei eta orobat, euskaraz idazten jarraitzea, *Maiatz* aldizkariko Luzien Etxezaharreta eta *Dakiteko* Sabin Orei eta beste zenbaitei, ere zor die. Literatura liburuen kopurua gora igo omen da: Joan Mari Torrealdaiak zorrozki ikertu ondoren argitaratu liburu aleena jaitsi dela erakutsi digu.

Eta badu Txomin Peillen idazleak iritzi propioa euskal literaturaz:

Ez luke Gil Bera desbideratuak bezala idatziko ez dela, gaur, euskal literaturarik, bestela berdin erran daiteke hizkuntza askorentzat. Ez luke errango gailurra jo duenik, bakarrik dio, behin Euskadi sarian kide izan ondoren, eta aspaldiko irakurle eta jale ona denez apairuetan eta otoruntzetan bezala baditugula pintxoak, sarrerakoak, plato nagusiak, barazkiak eta ondokoak. Lan batzuek edaria eskaintzen digutela eta besteek egarria. Berak dio, es-



Baiona. 2010-05-22. Manuel Lekuona sariaren ekitaldia. Txomin Peillen sariarekin

kaintzen dituen pintxoak onak baldin badira, hainbat hobe. Euskal eleberridazleek trenea berandu hartu dutela badaki, jadanik erdal eleberriek bide luzea egink zirelarik. Euskararentzat irrika handiaoa izanik ere, Koldo Mitxelenak ere uste zuen euskara literaturari mugatu behar zela eta eztabaida handia izan zuen Txomin Peillenekin Uztaritzen azkenik ikusi eta mintzatu zuenean: Mitxelenak ez zuen nahi gazteek euskara irakasgai guztietara egokitzen indarririk gal zezaten. Mitxelenak iker lanak, beste irakurleak ezean, gaztelaniazko liburuetan eman arren, bere artikulu askorekin ikerketari buruz eta literaturatik kanpo Mitxelena euskal hiztegia aberasten ibili zen.

Eta euskal literaturari erreposoa egiterako garaian atzera begiratzen du Peillenek bere biografian:

Euskal literatura aspaldikan liburuetarik jaldi zaigu: Josean Arce, Mikel Laboa, Imanol, Lurdes Iriondo, Mikel Markez, Natxo de Felipe eta beste batzuek olerkiak musikatu baitzituzten eta irakurle ez zirenak ukitu. Artzek kaligrafia eta Zumetaren irudiekin eman zituen bere lehen liburua eta hormetan irudi hedatzearekin, txalaparta soinuarekin, kanpoko hotsekin, beste teknikekin beren poemak irakurtzeko bidea hartu zuen erakutsiz, apur bat baztertuak diren olerkari eta prosista onak hala nola Edorta Jimenez publiko zabalagoa ukitu du Jon *Mirande kabere*tearekin eta zineak Andu Lertxundi hobeki ezagutarazi. Orain, euskal idazleak ospedun izateko literatura agentea behar du, arrotz hizkuntzetara itzulpenak eduki eta batik bat benetako espainol Sari Nazionala irabazi; halere sari eder horik gabe, hiru kaletarrek, bai hizkuntzaren, bai gaien aldetik hirurek euskal literaturaren sasiak eta sastrakak ebaki, bide berriak ireki. Oraingo literatura Saizarbitoriarekin eta Atxagarekin abiarazten dute gazteek, erraz ahazten dituztelako hilak edo zahartuak. Ez omen zen *Ehun metro* (1976) baino lehen, politika agertu eleberrian eta zer da Gerra Zibilaz Martin Ugaldek idatzi *Itzalleak* (1961) eta Txomin Peillenek euskaldun komunista baten etsipenak eta leialtasunak konstatzen dituen *Itzal Gorria*, 1963. urtean idatzia, 1966. urteko Txomin Agirre saria?

Txomin Peillenek bere lehen olerkia, gipuzkera osotuan, *Gernika* aldizkarian argitaratu zuen, Txen Huo Xan txinatar ospetsuaren legendaz idatzi zuen *Txinar gudari* izan zen, 1950. urtean, eta handik zenbait urtera eskema berean Gabriel Arestik *Nire aitaren etxea* euskaldunagoa paratu zuen. Bi lan hauek daude Txinarekin zorretan.

Era berean, Théophraste Renaudot sari ospetsua irabazi zuen Salbat Etcharten, bertan, Guadalupeko borroka armatua aipatzen da eta eleberriaren erdian, gizon baten ehun metroko ihes lasterka eder bat idatzi zuen. Hain justu, euskaraz gai berdina ardatz hartuta idatzi da, Peillenek autobiografian aipatzen duenez:

Txominek, sarritan, uste izan du, oharkabean, denen gisa, bere ipuinetan horrelako oroi-tzapenak edo ereduak izan dituela, baina hala nahiz olerkietan Errenazentistak imitatuz idatzi dituenak, baina aitortu ere, gainera haiek ere hamaseigarren mendean, batzuetan, latinezko olerkia edo prosa edertua, berriz idazten zuela: kristauak dioten gisaz: *barkatu baina ez da pekatu*. Modu berean, Txominen olerki hoberena omen dena ez du asmatu, 1964. urtean gaia Baghaad Gîtako Maha Bharata delakoan hartu zuen.

Gainera, pentsamendu bakarraren kontra eta idazterako garaian ikusmolde desberdinak erabiltzearen alde egiten du Txomin Peillenek behin eta berriro:

Batzuek diote dena idatzia izan dela, horrek erran nahi luke aspaldian idatziaren ondotik ez ela ezer aldatu munduan? Munduaren aldatzea eta pentsaeren ugaritasuna ukatzen gabiltza, uniformetasunaren kontra direnak. Hori mendebaldeko pentsamendu bakarraren frutua da. Sarritan, ez dakigu asiatarrek gure adigai batzuek bazterten dituztela hala nola Egja, Infernua, Paradisua eta Sartrek *L'Etre et le Néant delakoan izan* aditzaren inguruan eraiki zuena; beste begiz dakusatela, gure kategoriak alferrikako jokoak iruditzen zizkiela: *hala nola maindire mihise zuri bat deskribatzea, gau ilunpean*.

5. Algeria eta bakezaletasuna, Paris eta 68ko maiatza

Txomin Peillen Algeriako gudan izan zen, Infirmier Major bezala eta Gurutze Gorriaren izenean, Dohanikako Sendakuntza laguntza ematen aritu zen. Bertan zenbait medikuntza ezagutza jaso zituen, baita arabiar dialektoaz beste zerbait eta, batez ere bakezaletasuna barneratu zuen. Eusko Ikaskuntzaren *Euskonews* aldizkarian hala azaltzen du Peillenek Algeriak beragan utzitako marka:

Hango gerran gauza gogorak ikusi nituen. Osasun zerbitzuan ibili nintzen soldadutzan. Gurutze Gorriko karta batekin ibiltzen nintzen, erizain nagusi bezala. Algeriar zibilak etortzen ziren gugana eta arabiera ere ikasi nuen, modu xume batean. Eritasun anitz tratatu behar izan nituen: tuberkulosia, tifusa, begietako trakoma...

Baina, batez ere Algeriak bakezaletasuna indartu zuen Txomin Peillenengan. "Algerian tortura zer den ikusi bainuen. Zakurrak balira bezala tratatzen ziren presoak. Debekatzen ziguten haiekin medikuntza egitea. Hortik heldu zitzaidan bakezaletasuna", azaltzen du Txomin Peillenek *Euskonews* aldizkariari eskainitako elkarrizketan. Hala, Algerian lau urtez egon ondoren, 1968 Maiatzak Parisen harrapatu zuen Peillen, irakasle lanetan, baina ez zen Frantziako hiriburuan nagusi izan zen kale borrokan aritu:

Algeriako sentimendu hark pisu handia zuen nigan. Bestalde, hura niretzat ez zen iraultza, frantziarrek, sabela beteegia baitzeukaten iraultza egiteko... Hala ere, iruditu zitzaidan Lizaoan funtsezko hausnarketa bat egin behar genuela gazteekin, eta eztabaidatu zer gertatzen ari zen. Nik Hirugarren Munduaren egoera azaldu nuen egun haietan, batez ere, Europan haien bizkar bizi gjinela salatuz [...],

azaldu zuen Pariseko 68ko maiatzeko iraultzaz.

6. Abertzalea

Aipatu bezala, lagunuen eragina ere izan zuen Txomin Peillenek, denek bezalaxe. Hala, Peillenek, Andima Ibiñagabeitiaren eskolatik, bereizten du abertzaletasuna eta nazionalismoa, ñabardura ugari dituzten hitzak baitira Peillenen aburuz. Txomin Peilleneztat abertzale izatea:

[...] patriota izatea da, Euskal Herri gizarte baketsua eta euskal kultura zaindu lezakeen herri bat eskatzea, amets urrunen mailan dauka. Frantsesek euskara duintasunean hiltzen laguntzen dutelarik eta espainolstek frankismoaren garaiko mamuekin ofizialtasunari bere muina kentzea dabiltaion Txomin Peillenek euskaltzaletasuna lehentasunean edukiko du.

Azaltzen du Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria dela eta Peillenek berak idatzitako biografian.

Orduko, abertzaletasunari Mirandek egin kritikak onartuz ez zuen hark nahi borroka amata onartzen Gandhi baitzuen eredutzat eta beti indarkeria guztien aurka agertu delako. Aitortzen du Pariseko jaurlaritzaren giroan errepublikazale ideiak onartzen zituela, baita abertzale batzuen jarrera miresten: hala nola Hernandorena edo Agirre familia euskaldunena, baina ezagutu zituen anai arreba batzuk aietama euskaldunak eta abertzale handiak zituztenak eta euskararik ez zekitenak. Bestalde maiz ikusi du beren karguetan zeudeno abertale ez zirenak erretretan bide hori hartzen [...],

zehazten du Txomin Peillenek.

Eta alderdiak ere tartean:

Jakina, PNV alderdiak ez zituen Iparraldekoak onartzen frantses agintariekin arazorik ez izateko, baina nola nahi Txomin Peilleni ez zitzaion gogoko JEL formula klerikala. Behin, horretaz idatzirik erantzun irri egingarria, barregarria eduki zuen, alegia ez zela alderdi konfesionala gristino baloreen aldekoa baino. Abertzale bidea argitu zioten 1956. urtean Pariseko lehen *Congreso Mundial Vascon* entzundakoak eta berotuxe hegoaldetik etorri ziren lagunek: Bitor Kapanaga, Andoni Totorika, Karmele Rotaete, Elbira Zipitria eta besteek.

Hala, Txomin Peillen:

Eusko Alkartasuneko lagunekin ibili da, zazpiak bat gogoan, alderdi laiko horrek Iparraldean sail bat ireki zutenean. Sarritan bezala kritikoa dela esan du, nahiz ez den entzuna. Hitz handien erabilera ez zaio gustatzen, batik bat independentzia eta subiranotasuna hitz larriak gorensten direnean, adigai horien edukia aztertu gabe. Horrelako hitzak errealitatearen kontra zulatzen eta deshantzen dira; autodeterminazioa kanpo ez du aterabiderik ikusten gutxiago, gainera, eta nola liteke Europaren erdian Kuba berri bat sor? Inolako amets handirik gabe lealtasunez jarraitzen du ezpaita alderdi batetik bestera ibiltzen diren haize buruetarik: norat haitze, harat aise.